



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko irailaren 16an

69 ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Eurovestir enpresari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Zangozako Ur Mankomunitatearen ur-hornidura obren kontra aurkeztutako balizko salaketari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Nafarroako etxebizitzaren prezioari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Nafarroako Ingurugiro Departamentuak Bardeetako Natur Baliabideak Antolatze Planaren Aurrerapenaren berri izan ote duen itauntzen duen galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).

I SAILA:

Parlamentuko Jarduera:

- 1998ko ekainean egindako bilerak (8. or.).
- 1998ko ekainean Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda (11. or.).

F saila:
GALDERAK

Eurovestir enpresari buruzko galdera**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Xabier Vélez Medrano Foru Parlamentari jaunak Eurovestir enpresari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko azaroaren 28ko 82. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeko Xabier Vélez Medrano Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Eurovestir enpresarekin zerikusia duten hainbat gairi buruz. Hona Ramón Bultó Llevat Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren erantzuna:

Sektore oso heldu batean kokaturiko enpresa da Eurovestir. Europan dagoen joera jarduera hori lanesku merkeko zonetara lekualdatzekoa da, fakturazioaren gain lan-kostuek daukaten garrantzia dela-eta.

Enpresa hori 1995 urtearen bukaeran abandonaturik utzi zuten enpresari italiarrek, eta jarduera bertan behera utzi behar izateko arrisku larrian zegoen. Enpresari nafarrek osaturiko talde batek enpresaren ardura hartu zuen, eta zeuden lanpostuak mantentzeko gauza izan ziren.

1997an bideragarritasun-plan bat aurkeztu zuten. Plan horrek, zeuden lanpostuak mantentzea ezezik, lanpostu berri ugari sortzea ere aurreikusten zuen.

Horretarako, enpresak aktibo finkoetan inbertsio garrantzitsuak egiteari ekin zion (200 milioi

baino gutxiagokoak); langile-prestakuntzan ere bai.

Bideragarritasun-plana gauzatzeko arazoak izan dira, bezero garrantzitsuenetarikoa bik sortarazitako zailtasunak direla-eta. Horren ondorioz, bezero-multzoa berregituratu behar izan da eta lantegiaren barne-antolamendua hobetu.

Aurkezturiko arautze-espeditari dagokionez, Nafarroako Gobernuak beti eskaintzen du bere bitartekaritza gatazka-egoeretan, eta bitartekaritza hori eraginkorra izateko alderdiek onartu egin behar dute.

Horregatik, bilerak egin dira enpresaren eta langileen ordezkariekin.

Arautze-espeditaria onartua izan da, baina horrek ez du eraginik hasierako 42 pertsonengan, 23rengan baizik. Kontuan eduki behar dugu gaurregungo enpresari enpresaren ardura hartu zutenean, hasierako plantila 155 pertsonakoa zela, eta espeditaria onartu ondorengo plantila 218 pertsonakoa da; beraz, enpresa egoera zaila pairatzen ari den arren, 63 pertsonako gehikuntza garbia izan da.

Enpresarentzako laguntzei dagokienez, esan beharra dago horien helburua dela enpresak plan bideragarri bat egitea, eta lanpostu-kopuruak enpresaren bideragarritasun ekonomikoaren araberakoa beharko du izan.

Gaur egun, enpresari etorkizun baikorra ikusten zaio, baina bere barne-antolamendua hobetu behar du merkatuak eskatzen dituen produktibitate eta kalitate mailak erdiesteko.

Iruñean, 1997ko abenduaren 17an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

Zangozako Ur Mankomunitatearen ur-hornidura obren kontra aurkeztutako balizko salaketari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Zangozako Ur Mankomunitatearen ur-hornidura obren kontra aurkeztutako balizko salaketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1997ko azaroaren 28ko 82. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 29an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Askotariko Parlamentari Taldeko Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Zangozako Ur Mankomunitatearen ur-hornidurarako obren ondorioz zuhaitzak neurritz kanpo ebakitzeari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Ezagutzen al ditu Nafarroako Gobernuak salatutako egitate horiek? Ikerketarik zabaldu al du? Nor edo nortzuk ziren jarduketa hori, alegia, hasieratik ingurugiroan kalterik txikiena sortzeko aurreikusitako behar zutenak?

Nafarroako Gobernuak ezagutzen ditu, ezagutu ere, salatutako egitate horiek, obrak ehuneko ehuneko Toki Administrazio Departamentuak diruz lagunduak direnez gero. Departamentu horrek 1997ko azaroan irekitako espediente bat badago.

Zangozako Ur Mankomunitateak ez zion Ingurugiro Zuzendaritza Nagusiari Irati ibaia zeharkatzearen berri eman, eta erantzun honen egunerara arte zeharkatze hori egiteko inolako baimenik ere ez da eskatu. Hala ere, Ebroko Ur Konfederazioak badu obraren berri.

2.- Ikusirik arazo gehiago gerta daitezkeela, batez ere Ongaitzek egindako salaketa eta gero, aurreikusitako al du Nafarroako Gobernuak Ingurugiro Departamentuak kontrol neurriak indartzea?

Nafarroako Gobernuak Zangozako Ur Mankomunitateari exijituko dio obra osatzen duten fase guztietarako baimenak eta kasuan kasuko ingurugiro-azterlanak eska ditzan, eta Natura Zaintzeko Zerbitzuari egingo diren jarduketa guztiak ikuskatzea aginduko dio.

3.- Naturaren aldeko elkarte horrek beste arazo gune batzuk aurreikusten ditu salaketan, izan ere, ur-hornidura hori igaroko delako besteak beste Gabarderalgo adarretik, Ronda pasealekutik, Cantolaguako arboladitik, pinu eta arteen birlandaketa batetik eta abarretik. Zein jarduketa aurreikusi ditu Ingurugiro Departamentuak salatutako egitateak berriz gerta ez daitezzen?

Cantolaguako arboladian eta Gabarderalgo adarrean eginiko lanak Ebroko Ur Konfederazioak egin ditu, Zangozako Udalaren baimen espresuarekin eta INEMeko langile kontratatuekin, eta ibaien ertzeetatik sasiak eta sastraka kentzeko xedea izan dute, ertzek berezkoak dituzten bestelako landareak ukitu gabe. Ingurugiro Zuzendaritza Nagusiko Ingurugiro Zaintzako langileek egin diren jarduketak kontrolatzen segituko dute.

4.- Nafarroako Gobernuak uste al du salatutako egitateak espedienteren bat zabaltzeko modukoak eta zehapenen bat ezartzeko modukoak direla?

Obren jabea den Zangozako Ur Mankomunitatearen aurkako eta obrak burutu dituen ALCER enpresaren aurkako salaketak egin daitezke.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak hala eskaturik, obraren zuzendaritzak txostena aurkeztu du, sorturiko ingurugiro-eraginari eta hori arintzeko neurri zuzentzaileei buruzkoa. Neurri horiek behar adina direla ematen du. Arboladiari eragindako kalteen balioestea Natura Zaintzeko Zerbitzuko langileek egiten dute.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1997ko abenduaren 16an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Nafarroako etxebizitzaren prezioari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nafarroako etxebizitzaren prezioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu da. Galdera hori 1997ko azaroaren 28ko 82. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 29an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako etxebizitzaren prezioari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Zein da gure komunitatean eraikitako etxebizitza baten metro karratuaren prezioa? Eta eskualdeka hartuta (Iruñeko eskualdea...)? Zein bilakaera izan du prezio horrek azken bi urte hauetan?

Sustapen Ministerioko datuen arabera, Nafarroako Foru Komunitateko etxebizitza baten metro karratuaren prezioa 122.850 pta/m²koa da.

Datu hauek tasazio-sozietateetatik eskuratzen dira; beraz, hipoteka-kreditua eskatzeko prozesuan dauden pisu bukatuei dagozkie. Ondorioz, ez dira kontuan hartzen hipoteka-krediturik behar ez duten etxebizitzak, ezta babes ofizialeko etxebizitzak ere; hau da, bakar-bakarrik eraikuntza berriko pisu libreak eta etxebizitza erabiliak hartzen dira kontuan. BOEak sartuak egongo balira, prezioak txikiagoak izango liriteke, Nafarroa delako biztanle bakoitzeko BOE gehien eraikitzen duen Komunitatea.

BOEaren m² bakoitzaren prezioa 103.666 pezetakoa izan da 1997ko urtarrila-abuztua epean, erreferentzia gisa behin-behineko kalifikazioaren unea hartuz.

Sustapen Ministerioak 1997 urte osoko datuak prozesatu arte Komunitateko eskualdeetako datuak ez dugu izango.

Etxebizitza librearen (hau da, erabiliaren eta eraikuntza berrikoaren) prezioaren bilakaera, Nafarroa osoki hartuta, honakoa da:

1995 urtea	1. hiruhilekoa	112.383
	2. hiruhilekoa	113.271
	3. hiruhilekoa	112.920
	4. hiruhilekoa	112.064
1996 urtea	1. hiruhilekoa	111.610
	2. hiruhilekoa	114.380
	3. hiruhilekoa	114.149
	4. hiruhilekoa	114.859
1997 urtea	1. hiruhilekoa	117.556
	2. hiruhilekoa	120.134
	3. hiruhilekoa	122.850

2.- Mantentzen al du Nafarroak bilakaera-lerro bera etxebizitzetan Espainiako Estatuaren aldera? Ezberdintasunik bada, nondik heldu dira?

Espainiako eta Nafarroako etxebizitza librearen multzoaren prezioek honako bilakaera izan dute:

		Espainia	%	Nafarroa	%
1995	1.hiruhilek.	108.648	100	112.383	100
	2.hiruhilek.	110.057	101,30	113.271	100,79
	3.hiruhilek.	110.796	101,98	112.920	100,48
	4.hiruhilek.	111.119	102,27	112.064	99,72
1996	1.hiruhilek.	111.557	102,68	111.610	99,31
	2.hiruhilek.	112.338	103,40	114.380	101,78
	3.hiruhilek.	112.341	103,40	114.149	101,57
	4.hiruhilek.	112.551	103,59	114.859	102,20
1997	1.hiruhilek.	112.766	103,79	117.556	104,60
	2.hiruhilek.	113.641	104,60	120.134	106,90
	3.hiruhilek.	114.247	105,15	122.850	109,31

Ikus daitekeenez, Espainiak osoki hartuta izan duena baino handixeagoa izan da hazkuntza, nahiz eta, 1995eko lehen hiruhilekoa 100 oinarritzat hartuz gero, Nafarroan bi urte horietan 109,3ra igotzen dela eta Espainian, epe berean, 105,2ra igotzen dela ikusten dugun, eta horrek urteko batez besteko hazkuntza Nafarroan %3,3koa eta Espainian 1,8koa izan dela esan nahi duen.

Azken urtean Nafarroan etxebizitza librearen eraikuntza-erritmoa handitu izana da alde horren zergatia. Horixe agertzen du ondoko koadroak:

	Urtarrila- iraila, 96	Urtarrila- iraila, 97	Hazkuntza %
Etxebizitza libreen kopurua, Nafarroa	2.071	2.494	20%

Prezioa tasazioen batez bestekoaren arabera finkatzen denez, eta etxebizitza libreak, garestiagoak, ugaritu egin direnez, prezio hori igo egin da.

Ez dago daturik Espainian BOEen prezioak izan duen bilakaerari buruz, baina Nafarroan batez bestekoa murriztu egin da, askoz ere gehiago eraiki delako Araubide Berezian 1997an 1996an baino, eta mota horretako BOEa Araubide Orokorra baino %10 merkeagoa da. Prezioari buruzko datuak hauexek dira:

	Urtarrila- abuztua, 96	Urtarrila- abuztua, 97
BOE, pta/m ²	104.115	103.660

Araubide Bereziko etxebizitzaren kopurua handitu da ponderazio-koefizienteak handitu egin direlako; pertsona gehiago sartzeko dira Araubide Berezian gehienekoa den 2,5 Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren mugaren barruan.

3. Zein izan da Nafarroan eraikitako etxebizitzaren metro karratuaren prezioak urtean izan duen aldaketa-tasa? Eta Kontsumorako Prezioen Indizearena (KPI)?

Etxebizitza librearen prezioak izan duen urteko aldaketa-tasa, 1997ko azken hiruhilekoan, aurreko urtearekiko %7,08koa izan da.

Azaroari dagokion urtearteko KPI, Nafarroan, %2,6koa da.

4. Zein jarduketa egin ditu Nafarroako Gobernuak ahal dela gure Komunitateko etxebizitzaren prezioa mantendu edo jaisteko?

Etxebizitza libreen (berrien eta erabilien) prezioa igo ez dadin, Nafarroako Gobernua iaztik lanean aritu da eraikuntzaren sektoreak bere jarduerara gehitu eta pisu gehiago eraiki eta eskain ditzan beharrezkoak diren baldintzak sustatzen. Horrekin, pisuen prezioak beherantz egin dezala bilatzen da. Horrela, eraikuntzan lan egiten duten pertsonen kopurua igo egin da, eta erregistraturiko langabeziak behera egin du, bai INEMaren bai PAIaren (Populazio Aktiboaren Inkesta) datuen arabera. Baina obren hasierari buruzko estatistikak agertzen duten eraikuntza-jardueraren gorakada horrek ez du prezioetan eraginik izanen obrak bukatu eta hipoteka-kreditua lortu ahal izateko tasazioa egiten ez den bitartean.

Administrazioaren arintasunerako 300 eguneko Programak aurreikusi bezala, bai lurzoruarekin bai etxebizitzarekin zerikusia duten espedienteen administrazio-izapideak laburtzeari ekin zaio, eta horrek finantza-aurrezpena ekarriko die etxebizitzaren sustatzaileei; horren eragina etxebizitzaren azken prezioan nabaritutako dela espero dugu.

Etxebizitza librearen (berriaren eta erabiliaren) prezioa murrizteko posible diren ekimen politiketatik beste bat hartarako lurzoru publikoa eskaintzean datza, baina, horrelakorik ez dagoela gogotan edukiz, lurzoru publikoa BOEetarako eta merkatuan gazteei alokatzeko etxebizitzak jartzeko erabiltzen da, alegia, Etxebizitzari buruzko Planen aurreikusitako Araubide Bereziko alokairuak.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1997ko abenduaren 19an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Nafarroako Ingurugiro Departamentuak Bardeetako Natur Baliabideak Antolatzeke Planaren Aurrerapenaren berri izan ote duen itauntzen duen galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Ingurugiro Departamentuak Bardeetako Natur Baliabideak Antolatzeke Planaren Aurrerapenaren berri izan ote duen itauntzen duen galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko azaroaren 28ko 82. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 29an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeko Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Bardeetako Natur Baliabideak Antolatzeke Planari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

Izan al du Nafarroako Ingurugiro Departamentuak Bardeetako Natur Baliabideak Antolatzeke Planaren Aurrerapenaren berri? Baiezkoan, ingurugiroaren ikuspuntutik, zer iritzi du haren edukiri buruz?

Galdera horri erantzun luze eta zabala eman zion Kontseilari honek Nafarroako Parlamentuko Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordean izan zuen agerraldian, 1997ko azaroaren 18an. Horren edukia honekin batera doa.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren iritziri dagokionez, Nafarroako Natur Baliabideak Antolatzeke Planak egiteko prozedura arautzen duen Nafarroako indarreko legediari jarraituz (irailaren 9ko 320/1996 Foru Dekretua) derrigorrez eman behar den Antolatzeke Planaren Proiektuari buruzko txostenean adieraziko da, Bardeetako Komunitateak proiektu horri hasierako onespina eman ondoren.

Natur parkeko deklaraziotik sortzen den organo kudeatzaileak Bardeetako lurraldean deklaratuak bi natur erreserbetarako erabilera eta kude-

aketarako plan gidariak egingo dituelako adierazpenaren aurrean, uste al du Ingurugiro Departamentuak gai horretako foru legediaren aurkako lege-haustea gertatzen ari dela? Ingurugiro Departamentuak Bardeetako Komunitatearen aurrean aholkularitzako kudeaketaren bat egin al du edo egiteko asmorik al du indarra duen legedia betetzeko?

Nafarroako Gobernuak onetsi behar ditu Natur Erreserben Erabilera eta Kudeaketarako Plan Gidariak, Nafarroako Naturguneei buruzko ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legeko 19. artikulua ezarzen duen bezala.

Bardeetan badaude bi natur erreserba, apirilaren 10eko 6/1987 Foru Legeak (Lurraldea Babestu eta Erabiltzeko Eskualdeko Hirigintza Arauei buruzkoak) halakotzat deklaratu zituenak. Natur Erreserba horiek Caídas de la Negra (37. N.E.) eta Rincón el Bú (36. N.E.) dira.

Aurrerapenak gai horri buruz aipatzen duena hauxe da: gaur egun plan horiek oraindik idatzi gabe daudela, eta 9/1996 Legeak, 1. Xedapen Iragankorrean, esaten duela 6/1987 Foru Legeak Erreserba Integraltzat edo Natur Erreserbatzat deklaratu dituen naturguneei ez badute Erabilera eta Kudeaketarako Plan Gidaririk Foru Lege honek indarra hartuko duen egunean, halako plan bat izan beharko dutela gehienez ere bi urteko epean. Epe hori 1998ko ekainaren 28an bukatuko da. Bardeetako Komunitateak eskatzen du erabilera eta kudeaketarako plan gidari horiek egiten utz dakiola, horiek burutu ondoren Gobernuari aurkezteko, onetsi ditzan. Dena den, Nafarroako Gobernuak noizbait onetsiko duen proiektuak indarreko legedia beteko du, jakina.

Zein aurreikuspen ditu Nafarroako Gobernuak Bardeetako Natur Baliabideak Antolatzeke Planaren Foru Dekretua onesteko eta hura garatzeko?

1997ko abenduan, Bardeetako Komunitateak bere Batzar Orokorraren esku utziko du Antolatzeke Planaren Aurrerapenari eginiko iradokizunak eta alegazioen erantzunak onestea. Antolatzeke Planaren proiektua idazteko enkargua onesteari buruzko erabakia ere hartu beharko du. Ondorengo urratsak gai horri buruzko indarreko legediak ezartzen ditu: irailaren 9ko 320/1996 Foru Dekretua, Nafarroako Natur Baliabideak Antolatzeke

Planak egiteko Prozedura onesten duena; prozedura hori amaituko da Foru Dekretu bidez Antolatzeko Plana onesten denean.

Garapenari dagokionez, Proiektuak zehaztuko ditu egin beharreko jarduketak; horregatik, goizegi da oraindik horiek aipatzeko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parla-

mentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1997ko abenduaren 17an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

(Oharra: Aipatu agiria Foru Parlamentarien esku dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako Bulegoan.)

I saila:
PARLAMENTUKO JARDUERA

1998ko ekainean egindako bilerak

MAHAIA ETA BOZERAMAILEEN BATZARRA

2, 9, 16, 23, 25 eta 29an.

OSOKO BILKURA

4an:

– Nafarroako Demokraten Elkargunea eta Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeek Nafarroako Kontseilua arautzen duen Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko emendakinak eztabaidatu eta bozkatzea.

– Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeak Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuak buruzko Foru Lege proiektuari buruz egindako irizpena eta hari mantendutako emendakinak eztabaidatu eta bozkatzea.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea gizarte zerbitzuen alorreko hitzarmenei buruzko urriaren 25eko 20/1985 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea, hala bada.

– Maiatzaren 4ko 159/98 Foru Dekretua, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena, eztabaidatu eta bozkatzea.

– Zerga iruzurraren aurkako politikari buruz eta politika honek beka-sisteman duen eraginari buruzko jabeldura, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztua.

– «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Gutxienean Hizkuntzei buruzko Europako Gutuna berresten du.

19an:

– Batxilergoko lehen maila, gradu ertaineko prestakuntza zikloak eta gizarte garantiako programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikasketeen finantzaketa publikoa arautzen duen Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko emendakinak eztabaidatu eta bozkatzea. Emendakin bana aurkeztu dute Nafarroako Demokraten Elkargu-

nea Parlamentari Taldeak, Landa Marco jaunak, Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak, Errazti Esnal andreak eta Ciáurriz Gómez jaunak, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak eta «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak aurkezturiko Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea, hala bada.

– Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuaren eta Justizia Ministerioaren arteko lankidetzaz hitzarmena, delitua jasan dutenei laguntzeko bulegoa abiarazteko, eztabaidatu eta bozkatzea.

– Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak Lehendakaria premiatzen du Jesús Javier Marcotegui Ros, Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria, kargutik ken dezan.

29an:

– Batxilergoko lehen maila, gradu ertaineko prestakuntza zikloak eta gizarte garantiako programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikasketeen finantzaketa publikoa arautzen duen Foru Lege proiektuari buruz Hezkuntza eta Kultura Batzordeak onetsitako irizpena eta, hala bada, hari mantenduriko emendakinak eta boto partikularrak eztabaidatu eta bozkatzea.

– a) Osasun Departamentuari kreditu osagarria emateari buruzko Foru Lege proiektuaren bideraketa zuzena eta irakurketa bakarrean izango ote den erabakitzea, hala bada.

b) Osasun Departamentuari kreditu osagarria emateari buruzko Foru Lege proiektua eztabaidatu eta bozkatzea.

– «Socialistas del Parlamento de Navarra», Nafarroako Demokraten Elkargunea eta «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari

Taldeek aurkeztutako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 155. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea, hala bada.

– «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez, gaitzetsi egiten da Nafarroako Gobernua Hezkuntza eta Kultura Kontseilaritzatik egiten ari den hezkuntza-politika.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak aurkezturiko mozioa, Bardeetako Tiro Poligonoa deuseztuari buruzko zenbait erabaki har daitezen premiazeko, eta Landa Marco jaunak (Askotarikoa) aurkezturiko mozioa, Nafarroako Parlamentuak Bardeetako Tiro Poligonoaren aurka dagoela adierazteko, biak batera eztabaidatu eta bozkatzea.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak aurkezturiko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du soldadutzaren ordeko zerbitzua eta derrigorrezko soldadutza desagertzearen alde dagoela.

– Ezpeleta Martínez jaunak (SPN) aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernua premiazten da sendagileek preskribitzeko askatasunaren printzipioarekin loturiko neurriak har ditzan.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak eta Errazti Esnal andreak aurkezturiko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernua premiazten da Berako Labiaga ikastolako egoera konpon dezan.

– «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkezturiko mozio eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernua premiazten da neurriak har ditzan amaierako titulua duten erdi mailako tituludun espainiarrak direla-eta.

– Mahaiak joan den ekainaren 16an hartu zituen erabakiak Osoko Bilkurari proposatzeko Lurzoruaren Araubide eta Balorazioei buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legearen aurkako konstituziokontraotasun-errekurtsoa aurkez dezala eta Lurzoruaren eta Lanbide Kolegioen alorretako neurri askatzaileei buruzko apirilaren 14ko 7/1997 Legearen aurkako konstituziokontraotasun-errekurtsoa bertan behera utz dezala. Dagokion erabakia hartzea.

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEA

2an:

– Nafarroako Ehiza Plan Estrategikoa (1998-2008) eztabaidatzea.

– Landa Marco jaunak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernua premiazten da PVCaren erabilera bazter dezan.

25ean:

– Sánchez Turrillas jaunak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernua premiazten da hondakindegia eta zabortegeak desagertarazi eta antolatzeko plan bat egin dezan.

– Vélez Medrano jaunak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernua premiazten da Aragoiko Diputazio Orokorrarekin hitzarmen bat izenpetu dezan Las Planas de la Negran jartzeko den parke eolikoa gelditzeko.

NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA ETA MENDI BATZORDEA

3an:

– Landa Marco jaunak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Oliba Olioaren Defentsarako Mahaiaren alde dagoela adierazten du.

12an:

– Lan bilera. Bertan Bio Lur Navarra Elkartearen ordezkariak nekazaritza ekologikoaren garapenaren berri emanen dute.

16an:

– Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren agerraldia, esne industriei eta kooperatibei buruz sinatutako protokoloaren berri eman dezan.

24an:

– Sánchez Turrillas jaunak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernua premiazten da Nafarroako Uretalurrei buruzko Plan bat bidal dezan.

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEA

5ean:

– Lan bilera. Bertan zenbait ikastetxe publikoren ordezkariak batek Haur Hezkuntzako D eredu-

ko plazetarako eta Arte Batxilergoa euskaraz egiteko eskaeraren berri emango du.

5ean:

– Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez, Hezkuntza eta Kultura Departamentua premiatzen da haur eta lehen hezkuntza mailako 70 lanpostu betetzeko oposaketak osorik euskaraz egin ditzan.

– Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez, Hezkuntza eta Kultura Departamentua premiatzen da zenbait ikastetxetan euskarazko lerroak ireki ditzan.

– Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez, Hezkuntza eta Kultura Departamentua premiatzen da datorren ikasturtean José María Iribarren ikastetxean D ereduko lerro bat ireki dezan.

– Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez, Hezkuntza eta Kultura Departamentua premiatzen da Ikastetxeko Hizkuntza Plangintza modulua eskaini dezan zenbait ikastetxetan.

– Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez, Hezkuntza eta Kultura Departamentua premiatzen da G eta D ereduetako matrikulazioak Ave María eta C. Ilundain ikastetxetan bana ditzan.

– Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak aurkezturiko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez, Arte batxilergoa euskaraz ikasi ahal izateko neurriak har ditzatela agintzen da.

9an:

– Lan bilera. Bertan, Hezkuntza Departamentuko arduradunek aurrematrikulazio kanpainiaren garapenaren berri emango dute.

17an:

– Bisita Aralarko San Migel Santutegira.

19an:

– Lan bilera. Berako Labiaga ikastolako ordezkariak batek bere legezkatze eta ituntzearen berri emanen du.

– Lan bilera. “Nuestra Señora de la Compasión” itunpeko ikastetxeko arduradunek bi irakasle birziklatzeko eskaeraren berri emanen dute.

23an:

– Batxilergoko Lehen Maila, Gradu Ertaineko Prestakuntza Zikloak eta Gizarte Garantiako Programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duen Foru Lege proiektua eta hari aurkeztutako emendakinak eztabaidatu eta bozkatzea.

26an:

– Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren agerrialdia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, Berako Labiaga ikastolako egoeraren berri eman dezan.

– Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren agerrialdia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, irakasleendako euskarazko birziklatze-ikastaroak arautzen dituen 162/98 Foru Dekretuaren berri eman dezan.

– Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren agerrialdia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, Donapea Institutuko heziketa zikloen berri eman dezan.

26an:

– Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez, Hezkuntza eta Kultura Departamentua premiatzen da Berako Labiaga ikastolarekin zerikusia duten zenbait neurri har dezan.

– Romeo Lizarraga jaunak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez, Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko maila ez-unibertsitarioetako irakasleen euskarazko prestakuntzarako planaren XVIII. deialdia (apirilaren 27ko 120/1998 Foru Agindua) zabal dezan.

– Platero Alda jaunak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da D ereduan matrikulatu diren ikasleak “Ave María” ikastetxean sar ditzan.

– Platero Alda jaunak aurkezturiko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horretan eskatzen da Nafarroako Gobernuak salbuespen gisa “San Francisco” ikastetxean D ereduan matrikulatutako ikasleekin neurriak har ditzan.

– Platero Alda jaunak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Arte Ederretako Eskolan, arte batxilergoaren irakaskuntzan, D eredua ezar dezan.

– Platero Alda jaunak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez,

Nafarroako Gobernua premiatzen da José M^a Iribarren ikastetxe publikoan eta Ermitagaña B.H.I.n D ereduko lerro bana ireki dezan.

OSASUN BATZORDEA

11n:

– Osasun Kontseilariaren agerraldia, Bozera-maileen Batzarrak hala eskaturik, adimen gaixotasunen bat duen pertsonen erreabilitazio eta gizarteratzerako programen berri emateko eta Osasunari buruzko Plan Estrategiko bat egitearen berri emateko.

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO ETA BARNE BATZORDEA

16an:

– Nafarroako Kontseilu Arau-emaileari buruzko Foru Lege proposamena eta hari aurkezturiko emendakinak eta Nafarroako Kontseilua arautzen duen Foru Lege proiektua eta hari aurkeztutako emendakinak eztabaidatu eta bozkatzea.

24an:

– Toki Administrazioiko Kontseilariaren agerraldia, Bozera-maileen Batzarrak hala eskaturik, funtzionarioen montepioen berri eman dezan.

– Landa Marco jaunak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez,

Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Administrazioan egiten diren aparteko orduei buruzko ikerlan bat egin dezan.

INDUSTRIA, LAN, MERKATARITZA ETA TURISMO BATZORDEA

17an:

– Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren agerraldia, Bozera-maileen Batzarrak hala eskaturik, Nafarroako Energi Planaren garapenaren berri eman dezan.

HERRILAN ETA AZPIEGITURA BATZORDEA

18an:

– Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren agerraldia, Nafarroako Errepide Sarean istripu gehien gertatzen diren errepide-zatietan burutu beharreko jardueren Planaren (1998-2001) berri eman dezan.

GIZARTE GAIETAKO BATZORDEA

23an:

– Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariaren agerraldia, Bozera-maileen Batzarrak hala eskaturik, ezintasun psikikoa duten pertsonen laguntzeko sektorearen berrantolaketaren berri eman dezan.

1998ko ekainean Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda

1ean:

– «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldearen idazkia. Hauxe eskatu dute: Giza Eskubideen Batzordearen bilerarako deia egitea, Bakearen aldeko Koordinakundeak informazioa eman dezan askatasun-gabetze zigorra betetzen ari diren Nafarroako herritarren egoerari buruz.

– María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andrearen idazkia. Joan den maiatzaren 29an 1902 erregistro-zenbakiarekin egin zuen eskaria zabaldu nahi du, arte-batxilergoa egiteko eskaria egin duten D ereduko ikasleen gurasoen ordezkariak ere sartzeko.

– Delitu biolentoak jasan dituztenen elkarte nazionalaren idazkia. Delitu horientzako laguntzen

arabidearen erregulazioan dagoen arazoaren berri eman dute.

– Carmen García Olaverri andrearen eta beste batzuen idazkia. Gure Komunitateko irakaskuntza publikoaren alde batzuegatiko kezka azaldu dute.

– Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: Toki Administrazioiko Kontseilaria ager dadila informazioa emateko, Nafarroako Gobernuaren eta Gizarte Segurantzaren artean gestiorik ote den funtzionarioen montepioei buruz.

– Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Informazioa eskatu du, hala sare publikoan nola pribatuan birziklaje ikastaroa eskatu duten irakasleen zerrendari buruz.

– Arakil ibaian arrain hiltzearen zergatiari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak egina.

– “Hirigintza-planeamendurako dirulaguntza” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoze Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina.

– “Ingurugiro-hezkuntzarako dirulaguntza eta programak eta ingurugiroarekin zerikusia duten beste jarduera batzuk” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoze Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina.

– “Zentral txikienezako kalte-ordainak, ur-emari ekologiketara egokitu daitezten” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoze Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina.

– “Orkoien-Cordovilla linea aldatzea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoze Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina.

– “Kutsadurari aurea hartzea eta zuzentzea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoze Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina.

– “Naturaguneak zaintzea eta habitatak hobetzea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoze Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina.

– “Naturaren interpretazio-zentroak. FEOGA, 5b” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoze Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina.

– “Naturaguneak babesteko hitzarmena (Ezka-ba mendia eta beste batzuk) eta ibaiak bereonertztea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoze Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina.

– “Oihan Planari dirulaguntzak eta plan horri buruzko jarduketak” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoze Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina.

– Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren idazkia. Harekin batera, parlamentarioak Gizarte Segurantzari afiliatzea arautzeko Errege Dekretuaren proiektua.

– Alberto Catalán Higuera Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuari buruzko Foru Lege proiektuaren irizpenean jasotzen den 7 bis artikulua berria aparte eztabaidatu eta bozkatzea.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egindako galdera baten erantzuna, erreze-ta medikuen zenbatekoa jaitzi daitekeela erakusten duten ikerketa teknikoei buruz.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egindako galdera baten erantzuna, Sendagai orokorrak errezetatzekotan, kasu horretarako aurreikusitako zuzenketei buruz.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egindako galdera baten erantzuna, sendagaietan aurreztegatik emango omen diren sariak direla-eta, kontsulta mediku ratioetan sortu daitezkeen ondorioei buruz.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egindako galdera baten erantzuna, sendagaien fakturazioan aurreztegatik balizko sariak jaso ditzaketen medikuen zerrendari buruz.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egindako galdera baten erantzuna, hiri hondakin solidoen plan zuzentzaileko tratamendu eta bilketa alorreari buruz.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egindako galdera baten erantzuna, Nafarroako ibaiak arazteko eta saneatzeko plan zuzentzaileari buruz.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren emendakina. Foru Lege proiektua, Batxilergo Lehen Maila, Gradu Ertaineko Prestakuntza Zikloak eta Gizarte Gaietako Programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duena.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren emendakina. Euskarazko lerroak irekitzeko mozioa, Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak aurkeztua.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren idazkia, Administrazio Publikoen Kontratuari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztu emendakinei eusteko, Osoko Bilkurarako.

2an:

– Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentari Taldearen idazkia, Administrazio Publikoen Kontratuari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztu emendakinei eusteko, Osoko Bilkurarako.

– Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hurrengo informazioa eskatu du: Itoizko urtegiak eta Nafarroako ubideak Foru Ogasunari erakarri dizkion kostu ekonomikoei buruzko datuak, kostuok hasieratik honakoak zein legegintzaldi honetan gertatu beharrekoak izan.

– Hurrengo menderako tabakorik gabeko gizartearen aldeko manifestuari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak egina.

– “Kooperatiba araubideko makineria eta prokuzio-bideetarako dirulaguntza” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina.

– “Pirinioetako behien hobekuntza genetikoak. ASPINA” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina.

– “Esne-kontrola eta esne-ekoizpenaren kontrola. AFNA-NCL 447 dirulaguntza” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina.

– “Abeltzainendako dirulaguntzak behiak berriz jartzeko” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina.

– “ITGen jarduerak Interreg FEOGA-O Programan” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina.

– “Kalitatea eta dibersifikatzea. 5b helburua programa eragilea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina.

– “Laguntza teknikoak. 5b helburua programa eragilea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina.

– “Mahasti eta ardo ustiapen zentroaren birgaitzuntza. 5b helburua programa eragilea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina.

– “Dirulaguntza, ureztalur berrientzako edo daudenak hobetzeko” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina.

– “Lurzati-antolamendua. Jabetzaren aldaketa lanak. 5b helburua programa eragilea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina.

– “FEOGA-O nekazaritza ustiapenen eragin-kortasun hobetzea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina.

– “Dirulaguntza, kooperatibek nekazaritza produktuak gordetzeko biltegiak eraiki, handitu edo hobetu ditzaten” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina.

– “Dirulaguntza, araubide kooperatiboan ez dauden nekazaritza alorreko industrializatzeko eta merkaturatzeetan inbertitzeko” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina.

– “Kalitatea duen haragia. Nafarroako Aratxea. 5b helburua programa eragilea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina.

– “Federazioendako dirulaguntzak” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak egina.

